


MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA



**EUSKO
IKASKUNTZA**

**Gerardo
López de Guereñu
Galarraga**



MANUEL LEKUONA Saria
Prix MANUEL LEKUONA

Gerardo
López de Guereñu
Galarraga



1990



EUSKO
IKASKUNTZA

Egilea: Josemari Velez de Mendizabal

Autor:



Remigio Mendibururen brontzekok eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

VELEZ DE MENDIZABAL, Josemari

Gerardo López de Guereñu Galarraga / Josemari Velez de Mendizabal;
(traducción al castellano Luis Manterola) - Donostia: Eusko Ikaskuntza, 1996 -
XXX p.: il.; 21 cm. - (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona; 8). - Texto
bilingüe en euskera y castellano. - Premio Manuel Lekuona 1990.
ISBN 84-89516-15-4

1. López de Guereñu Galarraga, Gerardo - biografía 2. Bibliografía - López de
Guereñu Galarraga, Gerardo I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

012

929 López de Guereñu Galarraga, Gerardo

Hauen laguntzarekin: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia,
Gipuzkoako Foru Aldundia, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

ISBN: 84-89516-15-4

Depósito Legal: BI-1663-96

Fotocomposición: IKUR, S.A. - Cuevas de Ekain, 3 - 1.º - 48005 Bilbao

Impresión: Artes Gráficas Rontegui, S.A.L. - Avda. Ribera de Erandio, 4
48950 Erandio - Bizkaia

Datu biografikoak	5
Datos biográficos	37
Une gogoangarriak	67
Momentos memorables	67
Bibliografia	79



Eusko Ikaskuntzaren Batzorde Iraunkorrek, Bilbon 1990eko martxoaren 24an eginiko bileran, Manuel Lekuona Saria Gerardo López de Guereñu Galarraga arabar poligrafoari ematea erabaki zuen, euskal kulturari eskainitako lan erraldoia zela eta.

Manuel Lekuona Saria 1983an eratu zenetik, zerrendako zortzigarrena zen López de Guereñuri egokitu zitzaiona, saritutakoen artean bigarren arabarra genuelarik, Odón Apraiz Buesaren ondoren. Ezin hobeto ekin zion Eusko Ikaskuntzak, euskal kulturaren alde arabar lurraldetik aritutako gizon emakumeen *opera omnia* sariztatzeari, Odón eta Gerardo XX. mendeko euskaltzale handi zalantzaezinak baititugu. Liburuxka honetan bigarrenaren gaineko zertzelada batzuk azalarazten saiatuko naiz, xedearen irispidea txiki geratuko dela badakidalarik, pertsonaiak eta beraren obrak orrialde hauek eskainitako baino askozaz toki gehiago merezi eta behar duela azpimarratuz.

«Ikusitakoa eta entzundakoa ezagutarazi besterik ez dut egin nire lanean» ziotan behin López de Guereñuk, bere ohizko apaltasunetik, urteetako emaitzari gainbegiratu bat ematen ari gintzaizkiola. Baina, Gerardo apurtxo bat ezagutzen genuenok bagenekien, bere langelara sartu eta hura Arabako historia eta kultur altxorren artxibategirik osoena genuela, dekadetako lan ixil eta etengabeak sorturiko biltegi preziatua. Edozein ikerlarik López de Guereñuren etxeko ateak zabalik zituen, harengana daturen baten bila agertuz gero. Eskuzabaltasun horrek gure gizonaren irudia aberastu eta sendotu egin zuen, harekiko mirespena tinkotzen zen batera. Gerardoren lanak irakurri eta aztertzen hasi nintzenetik bera pertsonalki ezagutu nahi izan nuen. Haren liburu eta artikuluek izaera sendoko pertsonaia zela erakusten bazuten ere, errealitateak iragarpen guztiak txiki utzi zizkidan.

López de Guereñu 1904ko apirilaren 23an jaio zen Gasteizen- «*San Jorge egunean*», gogoratu ohi zuen- Frantzia kaleko 28garren zenbakian. Gurasoak Gumersindo José López de Guereñu Cadarso eta Concepción Galarraga Munain izan ziren, biak ere gasteiztarak. Jaioberria San Vicente elizan bataiatu zuten Gerardo José izenarekin. Bi anaia-arreba izan zituen, gazteagoak, Félix eta Teresa.

Lehen hizkiak Nueva Dentro kaleko Urbina edo San Ildefonso izenekin ezagaturiko eskolan ikasi zituen, ume-umetatik egundoko zaletasuna hartu ziolarik «erakuspen bizia» dei genezakeen metodoari. Horrela, guztien gainetik, ikasgai praktikoak zituen atsegin, batez ere ikastetxetik kanpo ematen zirenak. Mende hasierako Gasteiz txiki hartan, haurrek inguruko solo, erreka eta mendixkak zituzten jolastoki, eta horietan kutsatu zen gure mutikotxoak, bizitza osorako urrezko postulaturtat hartuko zuen izadiarekiko maitasunaz. Ondorioz, urte xamur haiek izpiritu irekiko gizona zizelatu zuten, geroko gizon betea izango zena. Berarekin izan nuen lehendabiziko elkarrizketan erreferentzia biziaren erabateko garrantziaz mintzatu zitzaidan eta XX. mende amaierako Gasteiz hiria bere haurtzarokoa baino hobea zela defendatzen zuen, «*niri dena hondatu didaten arren*».

Gerardo ez zen inoiz lagun taldeko gizona izan. Gurasoen agintepean iraun zuen bitartean haiei lotuta eman zituen ordurik gehienak, Gasteizen bertan eta, batipat, Apiñaniz herrixkan, sendiak etxe bat baitzuen toki hartan eta hara joaten ziren gereñutarrak lan egutegiak atsedenerako aukera ematen zuen gehienetan. Arrazoi horregatik, nonbait, Gerardok ez zuen Gasteizko kaleetako giroa beren sakontasunean bizi izan eta adiskideen zirkulua, gehien batez, gurasoen lagunetara mugatu zen, zeintzuekin noizik behin lautadako lekuren batera ateratzen ziren askaria egitera.

Gasteizera XX. mende hasieran iritsitako San Viator ordenako fraideekin ikasi zuen batxilerra, Arana kaleko ikastetxean. Frantziar jatorriko irakasle haiek zientifizismoarako zaletasuna piztu zuten Gerardo gaztearengan. Eta ertaineko ikasketak amaitzean, ordurarte bilduriko esperientzia praktiko aberatsa eta teoria ezkondu nahian, nonbait, magisteritzako bideari ekin zion arabar hiriburuko Escuela Normal zeritzanean. Baina karrera amaitu arren, ez zuen irakaskintzan sekula jardun.

«*Ora in hobeto dago gure ogibide hau; oraingo soldataz ondo bizi daiteke maisua. Lehen ez; lehen maisuak maisu, sakristau, udal idazkari eta, askotan, kanpajole ere izan behar zuen bizi ahal izateko*» aitortu zidan behin.

Baina Gerardo irakaskintzan ez aritzeko arrazoia ez da aurreko baieztapen horretan bilatu behar, sendiaren industria zuzentzeko hartu zuen konpromezuan, baizik. Antonio López de Guereñu aitona Frantzia kalean lehendabizi eta geroago San Vicente de Paúl deritzanean jarritako «Sillas plegables Antonio López» lantegian hasi behar izan zuen Gerardok hamazortzi urterekin, bere aita hil ondoren. Geroago Felix anaia gazteagoa ere lankide izan zuelarik, lantegi sekularrean aritu ziren, biak batera jubilatuta arte. Gereñutarren aulkiak Inglaterrara eta Ameriketaraino iritsi ziren. Ez zuten aulki toleskorrik bakarrik egin. Gerra amaituta, denetariko premiak nagusi, zurezko jostailuak hasi ziren fabrikatzen lantegian -trenak, etxetxoak, panpinak...- eta Gasteizen ezezik kanpoan ere saltzen zituzten. Gerardoren NANean «*Industrial*» jartzen zuen ogibideari zegokion tokian.

Bularralde estukoa izateak libratu zuen Gerardo soldadutzatik. Burgosera joatea egokitu zitzaion arren, berehala itzuli zuten etxera, armen zerbitzurako aske. Biziki poztu zuen erabakiak, noski, armada hura ez baitzen berea. López de Guereñu EAJko militantea zen, Gasteizko batzokikoa.

«*Nire herriarekiko maitasunak eraginda ekin nion ikerketa lanari*» azpimarratzen zuen. Eta herriaren gaineko kontzeptu zabal horretan, noski, Euskal Herri osoa sartzen zuen, ongi uler daitezkeen arrazoiengatik gehien jorratu zuen lurraldea Araba izan bazen ere. Sentimendu horrek disgustu batzuk ekarri zizkion gerra osteko agintariekin, susmagarri izateko egoeratik inor gutxi libratzen zen urte ilun haietan.

Apiñaniz herria aipatu dut gorago eta azalpen luzeago bat eskaini nahi nioke, toki hark era bereziz eragin baitzuen López de Guereñuren obran. Gerardoren aita izan zen, bere osasun arazoak zirela eta, Apiñanizen etxe bat erosi zuena, handik aurrera sendiaren udako biltoki bilakatuko zena. Izadiarekin harreman sakona edukitzeko lehen aukera serioa gertatu ziren Gerardorentzat Apiñanizeko egonaldiak. Hantxe hasi zen, artean ume zelarik, era guztietako intsektuak biltzen, tximeletei lehentasuna eman bazien ere. Hirurogei urte beranduago, hainbat ikasgai gehiagorekin batera, tximeleten mundua irakasten zien bilobei, berak betidanik erabilitako teknikak lagun.

Intsektuak diseinatu egiten zituen, sistemarik sofistikatuena aplikatuta ofizioko profesionala bailitzan, eta Federico Puente botikariari eramaten zizkion, honek katalogatu ahal izateko. Baina era bereziz engantxatu zutenak tximeletak izan ziren, etxean hazten baitzituen prozesu integral batean:

bilduman ez zeukan tximeletaren baten larba aurkituz gero bere langelara eramaten zuen eta bertan, kutxa egoki batean sartuta, elikatu egiten zuen. Tximeleta jaio ondoren, isolatuta iraunarazten zuen edo multzo ugariago batean. Zikloa tximeletaren errutearekin ixten zen. Gerardori Apiñanizen «El mariposero» esaten zioten, maitekiro.

Beste lerroaldi batean ere argi azaldua geratu den arren, López de Guereñuk berarengana informazioaren bila joaten ginenok jarrera ezin zabalagoaz hartzen gintuela azpimarratu nahi dut berriro ere. Hamaika lekukotasun ditugu, hori horrela zela frogatzen dutenak. Micaela Portillak, adibidez, honako hau zioen, Gerardori Manuel Lekuona Saria eman zitzaion ekitaldian:

«... Dorreetako argazki asko eta asko atera zizkidan; eta informazio puntual baten bila joan banintzaion, beste askorekin irten nintzen. Martioda, Fontetxa, Gebara.. eta abarreko argazkiak utzi zizkidan, laguntzeko orduan gutxi ematen zuela iruditu baitzitzaion beti»

Eta egia borobila da. Datuak ezezik, haiek nola erabili ere erakusten zigun, musu truke. Behin bakarrik sentitu bide zen traizionatua mugagabeko bere eskuzabaltasunean. Tximeletekin gertatu zen. Gerardok, Apiñanizeko bazterretaraino Txinatik iritsitako tximeleta bat harrapatu zuen. Lorpenaren oihartzunak erakarria, euskal zientifiko bat etorri zitzaion López de Guereñuri, tximeletari behar bezalako ikerketa egingo ziola eta mesedez uzteko. Gerardok tximeleta utzi eta handik zenbait hilabetetara jakin zuen zientifikoak bere izenarekin erregistratu zuela aurkikuntza. Jarrera oker horrek sakon mindu zuen López de Guereñu.

Apiñanizeko etxeak bestelako afizio batzuetan trebatzeko egokiera paregabea eskaini zion: ehiza eta arrantza. Zeharo harritu ninduen zaletasun horietarako Gerardoren joera ezagutzeak, ez dakidan zer buru mekanismo izkuturengatik guztiz arropa diferentez jantzia bainuen gure gizonaren nortasuna. Baina ehiztari eta arrantzale trebe zela jakin nuenean benetako izadizalearen irudiak hartu zuen toki nire baitan, López de Guereñuri egokitutako esparruan.

Galeperrak zituen, batipat, ehiz-xedea, udan eta Apiñanizeko galsoroetan. Arrantzale bezala, berriz, karramarroek tiratzen zuten gehien, amuarraina ahaztu gabe, Izki basoko errekaetoetan, Tirso Martínez de Alegria lagun izan ohi zuelarik. Eta bere ibilaldietako mugak zabaltzen zituenean, Zadorra ibaira jotzen zuen ur arratoien bila eta Betoñoiko aintziretara igelak harrapatzera. Ehizak zakurrak hazteko ohitura ere piztu

zuen Gerardo gaztearengan eta animalia ederrak izan zituen, inolako zalantzarik gabe interesateena -geroago azalduko dudana beste arrazoiarengatik- «Bat» izenarekin bataiatutakoa izan zelarik.

Gerra amaitu zenean eskopeta edukitzeko baimena eman ez ziotelako ehizean egiteari utzi zion López de Guereñuk.

Bere ibilaldietan, mendearen lehen laurdeneko Arabako errepide haietatik herrietaraino iristeko, lantegiko kamioneta erabiltzen zuen Gerardok. Gero "Buick" eta "Renault" zahar bat ere izan zituen. Baina, ehizarekin bezala, gerraren amaierak ohituren aldaketa behartua ekarri zion. Eta ez zuen aurrerantzean beste inoiz kotxerik gidatu. Beraz, bere joan etorriak bitarteko desberdinetan eratu behar izan zituen: trenak eta txirrinduak, batez ere, hartu zioten txanda autoari.

Apiñanizera Gasteiztik diren 29 kilometroak txirrinduz egiten zituen Gerardok, sendia, «El vasco» esaten zitzaion trenean bialtzen zuen bitartean. Arratsalde batean, pakete bat masustarekin Gasteizerantz itzultzen ari zela, lgeletako bihurtune estuan errepidetik atera eta amildegitik erori zen.

Oso gazte zela ezagutu zuen Gerardok bere bizitzako pertsonaiarik inportanteena: Pilar Yoldi Garayo. Bien amak lagunak ziren eta zirkunstantzia horrek mutil eta neskaren arteko harremana erraztu zuen. Baina izan zen beste bitarteko bat ere, gazteen erlazioetan garrantzi handikoa gertatu zena: lehen aipatutako «Bat» ehiz-zakurra. Gerardo, ordurako, San Vicente de Paúl kalean bizi zen eta Pilar, bere gurasoekin, Barreras zeritzanean, gaur egun Independencia izenarekin ezagutua. Kilometro bat egongo da, gutxienez, bi puntu horien artean. Bada, Gerardok joan etorriko bidea hain ongi erakutsi zion «Bat» zakurrari, non animalia bilakatu zen maiteminduen arteko mezularia, bata besteari idatzitako ohar idatzia lepokoan izkutu eraman ohi zituelarik.

Gorputzez txiki baina berebiziko bizitza adorea zuen emakume polit hartaz maitemindu zen Gerardo eta 1927ko apirilaren 23an ezkondu ziren, senargaiaren hogeitahirugarren urtebetetze egunean, hain zuzen. Bikoteak bi seme-alaba izan zituen, Gerardo eta María Pilar. López de Guereñuk berak aitortzen zuen bezala, emaztea euskarri paregabea gertatu zitzaion ikerkuntza lanetan, batez ere inoiz aurpegi txarrik ipini ez ziolako, arratsalde batean bai eta bestean ere bai, datuen bila probintziako bideetatik barrena bakarrik abiatzen zenean.

Gure gizonak umetatik xurgaturiko izpiritu berdinaz kutsatu zuen bere sendia, naturarekiko hurbilketa positiboa, alegia, eta jai egunetan, Apiñanizera ez zihoazenean, Euskal Herriko mendietara igotzen ziren, sendiburuak bere afiziorik kuttunetakoa eta, dudarik gabe, gainerakoen eragilea zen argazkigintzari aukera osoa emanez.

Gerardo Arabako mendi guztietara igo zen, gutxienez birritan. Euskal Herriko tontorrik gehienak ezagutzen zituen eta baita urrutikoak ere, Pirinioak batik bat. Ibiltari nekezina, Bizkaiko bira egin zuen gaztaroan, sei egunetan. Eta Gasteiz eta Bilboren arteko bidea hamabi ordutan egin ohi zituen. Ibilbideetako planoak jasotzen saiatzen zen, gehien interesatzen zitzaizkion datuekin: toki izenak, landareak eta datak. Gorbeiaiko mapa bat ere egin zuen, erliebean.

Berrogeigarren dekadako erdialdean ez zegoen Gasteizen, 1936an desagerturiko «Club Deportivo Alavés», «Los amigos de las cumbres» edo «Mendigoizale Itxarkundia» elkarteen gisakorik. Gasteiztik hurbilen zen mendialdea Eibarkoa zuten eta berrogeitamazazpi kide arabar zeuden afiliatuta; ondorioz, arabar azpibatzaordea sortu zuten Eibarko taldean. Zerrenda hartan, lehendabiziko postuetan, gereñutarren lau kideak aurkitzen ziren, jarraian José Gabriel de Aguirre, Luis eta Manolo García de Andoin, Juan Salazar, José Martín Cortázar eta beste mendigoizale ospetsu ere agertzen zirelarik.

1949ko maiatzaren 22an Euskal Herriko Mendizaleen Elkarteko batzarra egin zen Elgetan eta bertan Gerardo López de Guereñu Yoldiri eta Juan Salazari Gasteizen Elkarte bat sortzea eskatu zitzairen. Gerardo semeak une haiek gogoratu zituen, 25 urte beranduago idatzitako artikulu batean. Adierazgarriak dira, oso, hurrengo lerroak:

«Ideia biziki gustatu zitzaigun eta adoretzu azaldu ginen erronka haren aurrean. Nire aita komentzitu nuen, oraindik ez dakit nola, bere individualismo itxia zela eta, eta biok Emilio de Apraiz bisitatu genuen, asmoarekin bat etorri zena»

Gasteiztar asko gehitu zen berehala proiektura eta urte hartako uztaillean egin zen lehen batzarra, sortzear zegoen Elkaratearen nondik norakoak zehazteko. Mendiko sailaz aparte beste batzuen antolaketa ere proposatu zen. Eta azkenik, 1949ko urriaren 6an, Sociedad Excursionista Manuel Iradier izenarekin bataiatu zutenaren lehen agiri ofiziala izenpetu zen eta José María Díaz de Mendiivil aukeratu zuten lehendakari.

Akta hartan irakur daitekeenez, beste batzuen artean honako sail hauek gauzatu ziren: Mendi eta Ibilaldiak, Gerardo López de Guereñu Yoldiren lehendakaritzapean; Artea, Emilio de Apraiz; Arkeologia, Domingo Fernández Medrano; Argazkigintza eta Erakusketak, Gerardo López de Guereñu Galarraga; Hitzaldi eta Publikapenak, Ignacio Sagarna; Etnografia eta Toponimia, Gerardo López de Guereñu Galarraga.

Halaber, Gasteizko Gida gertutzeko batzordea ere osatu zen, Emilio de Apraiz, Ignacio Sagarna eta Gerardo López de Guereñu Galarraga kideekin.

Irakurleak igerriko zuen bezala, aurrerantzean bi Gerardo López de Guereñu azalduko zaizkigu arabar kultur mugimenduan. Biak elkarren ondoan aritu ziren ikerkuntzan, esparru desberdinetan baina oso hurbil.

Manuel Iradier Ibiltarien Elkartetik lan ixila baina emaritsua egin zuen Gerardok, egokitu zitzaizkion sailetan batez ere. Igande eta jai egunetan, lagun talde baten buru zelarik, ahal zituen ikasgaiak ematen saiatzen zen, Araban eta Euskal Herri osoan. «**Araba. Solar de arte y de fe**» liburuan López de Guereñuren bizitzari buruzko aipamena egitean, hura «*ibiltari eredugarria*» zela zioen Emilio Apraiz hitzaurregileak.

Gerardoren zientziatik zuzenean edan ahal izan zuen beste pertsonaia bat Micaela Portilla da. Micaelak berak gogoratzen zituen Elkarrearekin eginiko irtenaldiak, López de Guereñuri Manuel Lekuona Saria eman zitzaion eguneko hitzaldian:

«1953an ezagutu nuen Gerardo, lizentziaturako nire ikasketak amaitu berriak nituela. Pancorbora eta bertako gaztelura eginiko ibilaldi batean izan zen... «El señor Gerardo»¹ guk horrela esaten genion, taldearen motorea zen.

... Beste batzuetan, muino baten gainean ikusten genuen, bere makinarekin -artista bailitzan- zeruak, hodeiertzak eta inguruko zelaiaak fotografiatzen ari. Naturaren txikitasuna eta handitasuna antzematen bazekien, bestei eskaini aurretik, bere eginez maitatu ahal izateko.

... Une batean bistatik galdu genuen baina handik gutxira agertu zitzaigun, bidezidor baten bihurgunean, nondik irtena zen inork ez zekien artzain batekin, bizitza osoan elkar ezagutu izan balute bezala Geradorekin mintzatzen zena. Izan ere, ziur nago Gerardo bere izaera

1. López de Guereñu aita, eta ez semea, adierazi nahi zela bereizteko.

jatorrik onenarekin hurbildu zitzaiola, baina eurengandik informazioa jaso nahi zuen pertsona ohi zien begirunearekin. Bazekien haiei euren berezko hizkeran mintzatzen, herriko beste bat bezala, baina errespetu osoarekin, ia ia gurtzeraino, gure eskuetatik betiko desagertzeaz zeuden ohituretako azken zaintzaileak bezala.

...»Manuel Iradier«-ekin eginiko irtenaldietan beste gauza batez jabetu nintzen: Gerardo maisu bikaina zen, eragile eta animatzailea, gaur egun esango genukeen bezala, kilate askotakoa.

Gerardo -agian batzuek ez dute ezagutuko- maisu tituluduna da; baina profesioan sekula ibili ez zen arren, geletara inoiz eraman ez zituen pedagogia, metodologia eta didaktika eskuzabaltasun osoz banatu zituen izadiarekiko harreman zuzenean. Elkartearen ibilaldiak bere irakasgela bilakatu zituen, zeru irekiko bere gela. Haietan gazte askorengan jakinmina piztu zuen, baso eta herrietako edertasuna gozatzen irakatsi zituelarik, eta gure sorterria maitatzera; askori, gaur egun praktikatzen dituzten afizioetatik barrena abiatzen lagundu zien; eta guztioi asko irakatsi zигun, eta egiazko maisu apal baina bizigarri izatezko nortasunaren oroitzapena utzi zигun, edozein irakaslek eduki beharreko bi nolakotasunak, hain zuzen»

López de Guereñu perfektionista bat izan genuen bizitza osoan. Gauza zen, ikerketa lana nola geratzen zen ez bazitzaion gustatzen, berriro ere hasieratik ekiteko, emaitza guztiz onetsi arte. Gizon ordenatua zen, «gauza bakoitza bere lekuan eta leku bat gauza bakoitzarentzat» pentsatzen duten horietakoa. Ikusgarria genuen bere artxiboa.

«Lantegian ikasi eta erabili dudan industri-antolamenduak zuzenki lagundu dit etnologi-ikerketetan, metodologiari dagokionez, batik bat, baina baita artxiboan ere», aitortu zidan behin, askotan bezala daturen baten eske joan nintzaiolarik, erantzunerako erakutsitako prestakuntza eta azkartasunarengatik nire harridura azaldu ondoren. Eta egia zen: bere etxeko artxibo aberatsa eredu bat genuen, edukinaren aldetik eta datuen ordenamenduari zegokionez. Gerardorentzat, lana ez zen amaitzen datu bilketarekin edo horien gaineko azterketaren ondorioarekin; beraren ustez, ikerlariak eskura eduki behar zuten beti euren lanerako ezinbestekoa den dokumentazioa.

Gerardo, goian azaldu dudan bezala, ez zen lagun taldeko gizona. Bere zirkulua murrizta zen, azaleko harremanak ugariak bazituen ere. Berak zioenez, bizitza osoan ez zuen taberna bat ere bisitatu. Agian horrexegatik,

murrinaz oroitzen zuen zahartzaroan, ume koxkorra zela bere aitona zenarekin zinera joateko ohitura, eta zinetik atera ondoren «Casino Vitoriano»-n egin ohi zuten kontsumizioa: kafesne bana. Handik etxerako bidean aitona esnezko opila erosten zion «La Suiza» gozokidendan.

Lantegiak libre utziriko ordurik gehienak ikerketara atxikia ematen zituen Gerardon, arratsaldeko seietatik aurrera ikerlanetan aritzen zelarik, la egunero Sancho el Sabio Elkartera azaltzen zen. Linacero liburudenda ere maiz bisitatzen zuen. Beste batzuetan Alberto Kochengana joaten zen, bien zaletasun handia zen argazkigintzari buruzko iritziak elkar trukatzeko.

Gutxik dakite López de Guereñuk joera handia izan zuela bildumetarako. Eta nork daki gurutzegramak preparatzen zituela? Harrigarria badirudi ere, zahartzarora bitartean gurutzegramak egiteko afiziorik sekula agertu ez zuen gizonak, behin zahartuz gero -besteek bete zitzaaten- laukiak preparatzen zituen, erraztasun handiarekin. Komikiak zituen atsegin eta baita txiste grafikoak ere. ABC egunkariako biñeten mozkinak biltzen zituen kuadernoetara. Don Celes pertsonaia ere zuen gogoko. Eta poxpolo toxak; eta hainbat bitxikeria gehiago, gizon metodiko baten erretratu egiten dutenak.

Antzerkia atsegin zuen Gerardok eta abono bat hartu ohi zuten senar-emazteak urtero, Gasteizera etorri ohi ziren konpainien obrak ikusteko. Urtean toki bera izan zuten Principal antzokian: hirugarren lerroko lehenengo eta hirugarren eserlekuak. Magisteritzako urteetatik, bestalde, pilotarako zaletasuna gorde zuen ongi sustraitua. Ezagutu zutenek diotenez, ikasle zela, oso ondo jokatzeko eskuz. Klaseek utzitako aisitartean La Soledad kantoitik Zapateria kaleko frontoira jaisten ziren ikaskideak eta han partidu sonatuak jolasten zituzten. Urte helduagoetan ere primeran eutsi zion Gerardok pilotarako afizioari eta Félix anaia, Luis Fernández de Retana koinatukidea, Tomás Atauri eta beste batzuekin partidu gogorrak eratzen zituzten, anaiaren etxeko frontoian.

Senar-emazteak bikote eredugarria osatzen zuten, noizean behin Pilarek gizonari abandonatua eta ahaztua edukitzea leporatzen bazion ere, «*zu Arabaren senargaia zara eta ni hemen naukazu, zu noiz etxeraturako zain*».

1980ko Bazko Igandean hil zen Pilar Yoldi eta emazteak utzitako hutsuneak sakon eragin zuen Gerardoren bizitzan, animikoan ezezik baita fisikoan ere. Apiñanizeko erretiroan eta sendiaren laguntzaz zuzpertsu ahal izan zen, lehengo izatera sekula itzuli ez bazen ere.



Gerardorentzat erabateko ondorio ezkorreko jazoera, ordea, bere semearen heriotza izan zen. Lau dekadatako lan hurbila etena geratu zen betiko 1989ko urtarrilaren 11an, eta Gerardo aita ez zen aurrerantzean lanerako gauza izan. Gerardo López de Guereñu Yoldiren -Iholdi, berak izenpetzen zuen bezala- desagerpenarekin amaitu zen Gerardo López de Guereñu Galarragaren produkzio zientifikoa.

1992ko azaroan gaixotu zen López de Guereñu, guztiz ezgaituz. Santiago Ospitalera eraman zuten eta bertan hogeitabi egun eman zituen. Abenduaren 2an argi xamar esnatu zen eta aitona zaintzen gelan zegoen bilobarekin elkarriketa labur bat izan zuen. Baina bapatean hiltzurrungetan hasi zen eta handik gutxira betiko itzali zen arabar jakintsuaren bizia. Ixil-ixilik joan zen, mundu honetan zaratotsik atera ez zuen gizonari zegokion moduan.

Argazkigintzan maisua

Zer izango zen Gerardo López de Guereñu, bere lehen argazki makinari heldu izan ez balitzaio? Horra hor, erantzunik gabe geratuko den galdera. Dena den, ez ginateke oker ibiliko, arabar ikerle honen lanaren ardatza argazkigintza izan zela esango bagenu. Urte xamurretan zaletasun horri atxiki zitzaion eta hortik abiatuta igo zen Gerardo, bere bizitzan zehar jorratutako arlo zientifikoen eskaileretatik gora.

Hogeitamargarren dekadako Gerardo López de Guereñu ezagutu zutenek erretratu berdina egiten dute gizon haren irudia mugatzea eskatzen zaienean: mendigoizalearen antzera jantzita, argazki makina lepotik zintzilika eta eskuan oharretako kuadernoa.

Mendirako zuen afizioa eta argazkiak egiteko ohitura maisuki uztartu zituen, ondorioz milaka fotografiatako bilduma lortu zuelarik. Ibilaldi haiek aprobetxatuz, Arabako elizak fotografiatzen hasi zen. Denak izan zituenean, multzoa bakoitzaren xehetasunekin hobeago zezakeela iruditu zitzaion eta bigarren osterari ekin zion. 1935erako egundoko bildumaren jabe zen.

Venancio del Val gasteiztarrak honela idatzi zuen 1948an, Gerardoren gainera zertzelada batzuk hiriko kazeta batean ematean:

«Olarizuko egunaren arratsaldea zen, 1935ean, eta hiriko mugarriak bisitatu eta erromerian aritu ondoren Gasteizerantz itzultzen ari ginen. Sute baten albisteak San Ildefonsoko Kristorantz hurbilarazi gintuen. Hango kalea argitasun handi batek hartua zegoen: López de Guereñuren aulkietako fabrika erretzen ari zen»

Eta del Valek Gerardori hitzeginarazten dio, aipaturiko artikuluan hartan:

«Magisteritzako Eskolatik atera nintzenean erosi nuen argazki makina. Hogei urterekin ekin nion Arabako elizak fotografiatzeari... Sutean denak erre zitzaizkidan, bi mila inguru. Galdutako argazki guztiak, ordea, lau mila izan ziren...eta bost mila inguru liburu, batzuk meritu handikoak eta birreskuraezinak.

Egun hartan ez nengoen Gasteizen. Eguneko eta bezperako jaia aprobetxatuz, Apiñanizera joan ginen. Asteartean, itzuli aurretik, Félix anaia etorri zen berri txarra ematera. Salbatu nituenak, artean errebelatu gabe nirekin neuzkanak izan ziren.

Galera kalkulaezin haren zati handi bat berregin ahal izan dut. Hamar urte eman ditut erretako argazkiak berriz lortzen»

Argazkigintzak hainbat sari ekarri zizkion López de Guereñuri. Lehena, 1935ean, Bilboko Club Deportivo Elkartearen Ohorezko Saria, «Antezanako Gurutzea» tituluko obrarengatik. 1942 eta 1947an Elkarte berdinak beste bi garaikurrekin sariztatu zuen. 1948an, berriz, Matarotik iritsi zitzaion goraipamena.

Bestalde, Katalunyako Ibiltarien Zentruak, San Jorge eguna zela eta, 1947 eta 1948 urteetan antolaturiko Mendiko Argazki Lehiaketan, zilarrezko domina bana irabazi zituen López de Guereñuk, «Udaberria» eta «Behelainoa Gorbeiairen gainean» argazkiekin.

Argazkigintzarako bere zaletasunean aurrera egin ahal izateko eta Gasteizen, bere ustez, giro aproposik ez zegoelako, Gipuzkoako Argazki Elkarteko kide egin zen 1948an. Ordudanik, ehun inguru izan ziren Gerardok lehiaketetan lorturiko sariak eta mundu osoko nazioarteko erakusketa askotan azaldu zituen bere argazkiak, gehienetan arabar gaiekin girotuta.

Gerardori buruz idatzi nuen lehen artikuluan, gure pertsonaiaren etxe atarira sartu bezain laster hartu ninduen sentsazioa azaldu nuen. Eskailerako hormak argazkiz apainduta ikusteak sentimendu bera piztarazi bide zion Micaela Portillari, López de Guereñuri Manuel Lekuona Saria eman zioten egunean gasteiztar katedradunak adierazitakoaren arabera:

«... Han gure lurreko loreak ziren, ihintz tantekin lorostoetan; antsigarrak bustiriko adarrak; tximeleta eta intsektuak, euren txikitasunean eder, lore eta galburuen artean; artalde eta abereak; herri, eliza eta Araba osoko baserriak. Gerardo izadiaren aurrean oso gizon sentibera da, naturak duen poesia antzematen eta artista bezala jasotzen dakiena»

Eusko Ikaskuntzaren argazki artxiboan bada Gerardo López de Guereñuren obraren zatitxo bat, beste zenbait ikerleren bildumekin batera katalogatu eta digitalizatu egin dena, bihar etziko belaunaldiek ere haren artea goza dezaketen. Betebehar horren arduraduna izandako Arantza Cuesta adituak zioenez «argazki xehe, zuzen eta ongi eginak ditugu Gerardoren obrako nolakotasunik azpimarragarrienak. Argitaldiaren gaineko

kontrol bikainarekin daude lortuta, irudiei tonu zabaltasun handia eskaintzen diena, itzalen argitasun egokia nabarmenduz, ikuspuntu eta formatoen aukeraketa asmatuarekin batera»

López de Guereñuren argazki bildumaren zatirik garrantzitsuenak Arabako Lurralde Historikoaren Artxiboan dago, sendiak eta erakunde horrek sinaturiko hitzarmenari esker. Hamalau mila argazkik osatzen dute artxiboko multzoa, positibo, negatibo eta kristalezko plakak zenbatuta.

Gaiari dagokionez, arabar arteak betetzen du kopururik handiena, %80 inguruko zatiarekin. Gainerakoa, berriz, gai askotako azpisailetan sar daiteke: mendia, paisaia, etxe barneko irudiak, sendia, itsasoa... Azpimarratzekoa da, López de Guereñuk irudiak nahasteko zuen trebetasuna. Adibidez, sagarrondoa loratan ikusiko dugu, sagar eder batzuen gaineko lehen planoarekin, edota, dozenaka aurki daitezkeen era guztietako bodegoiak.

Arabar Artxiboak López de Guereñu argazkilaria «erreibindikatu» nahi du, haren obraren katalogo orokorra preparatzen ari delarik, gaiak egokiro sailkatuz.

Erlijio etnografia

Ez dakit titulu horretan egoki sailkatzen ditudan, Gerardok arabar tenplu eta erlijio irudien inguruan eginiko ikerketa lanak. Baina, edozein modutan ere, arabar artea hobeto ulertzeko Gerardoren ekarpen grafikoak ikerleengana ondasun ederra hurbildu du eta argitaratutako liburuak horren lekukoak ditugu.

«**Alava. Solar de arte y de fe**» deritzanean, 1962, egileak berak aurkezten digu lana burutzeko jarraituriko sistema, eta behartua aurkitzen da argazkigintzarako bere afizioa berriz ere aipatzera. Bilduma erre aurretik bina argazki zituen Arabako elizetakoak: aurrekalde nagusia eta aldarea. Bildumaren derrigorrezko birreraketak hobeakuntza adierazi zuen, elizetako nolakotasunei buruzko Gerardoren iritzi osatuagoak emaitzaren kalitatea jasoarazi baitzion. Arabako erromanikoak, esaterako, indar bereziz erakartzen zuen eta estilo horretako edozein gairen aurrean behin eta berriz sakatzen zuen argazki makinaren botoia.

Ene ustez, aipaturiko liburu hori hartzen zuen López de Guereñuk bere obraren epintzat. Eta ez da batere harrigarria, liburuaren mamia artezale guztiek txalotzen baitute, erlijios artearen gaineko edozein zehazkizun behar duenak testu horretara jotzen duelarik. Gerardok, harro harro esan ohi zuen, «*Micaela Portillak «Gereñu»a kontsultatzen duela dio*», Arabako historia artistiko monumentala biltzen duen liburuak arteko adituarentzat zuen garrantzia nabarmendu nahian.

López de Guereñuk berak zioen bezala, liburuak ez da katalogo bat, inbentarioa baizik, tenpluen gaineko xehetasunak, egileak fabrika liburuetan aurkiturikoak direlarik. Gerardok, beraz, bazekien non zeuden bere mugak. Eta ezagupidetza horren gaineko kontrolak arabar etnografoaren maila goratzen du, dudarik gabe.

2136 erreferentzia dira liburuan azaltzen direnak, tenplu, toki eta oroitzapenen artean, arabar gotzaitegiko esparru osokoak, Trebiño eta Urduña barne. 150 argazkik ilustratzen dute testua.

Aitatu beharreko beste liburu bat «**Andra Mari en Alava**», 1982, titulatua zuena dugu. Aurrekoa bezala, herriz herri eginiko ibilaldi nekaezinaren

ondorioa da eta denak batera argitaratu aurretik, 1956tik 1964ra bitartean «Estibaliz» aldizkarian joan zen publikatzen banan banan. Probintziako Andra Mari guztiak jaso zituen bere makinarekin: aldareetakoak, sakristietakoak, sabaietakoak,...den-denak, erretaletan ageri diren adbokazioak barne. Arabako historia mariologikoa aurkitzen da liburuan. Ia 500 argazki osatzen dute. Aita Lizarralde zenak Gipuzkoa eta Bizkaia eta Aita Claveria Aranguak Nafarroan buruturiko Andra Marien osagarritzat jo daiteke López de Guereñuena.

Bere estilo apalean, honela dio Gerardok Andra Marien bildumako hitzaurrean:

«... Egile xehe hau, ez bata ezta bestea ere ez dena (jakintsu eta literatuegile), argazkizale huts baizik, bere sorterriaz maitemindua, hori bai, literarioki gaizki jantziriko Andra Mariaren irudi hauek aurkeztera behartuta dago, dauden tokietako zehazkizun solte batzuek eta herriak dien debozioak jantzi egokia eman diezaieten»

Gerardoren lana ez zen bukatu irudien erreferentziazte hutsarekin eta, ganbara, sakristia eta sotoetan ahazturiko asko osteria argitara atera ziren bere gasteiei esker.

Liburua publikatu aurretik egin nion elkarrizketa batean ironia finaz zioenez, beldur zegoen ez ote zuten erotzat hartuko, bildumako irudi asko bere irudimeneko fruitu hutsak zirela esan zekiokkeen eta, ordurako ez baitziren inon ageri. Gerardo galera handiaren lekuko ezulertua izan zen urtetan, salaketak egitea ezertarako balio ez zuen denbora bateko testigu ezerosoa, alegia.

«Behin, zaharkizale horietako bat herri txiki bateko apaizari joan zitzaion, aldareko irudi bat erosi nahi ziola esanez. Apaizak ezetz, hura ez zegoela salgai. Handik gutxira berriro hurbildu zitzaion, 4000 pezetako eskaintzarekin, irudia eramatearren. Egun batzu beranduago itzultzeko eskatu zion abadeak. Bera, bitartean, gotzaitegira joan zen, elizako teilatua hondatuta zegoela eta itoginak nonahi zirela azaltzera. Baina konponketarako dirurik ez zegoelako erantzunarekin itzuli behar izan zuen abadeak herrira. Beraz, kontzientzia lasai nonbait, zaharkizalea hirugarren aldiz agertu zenean, irudia 4000 pezeta... eta sotana berri baten truke eman zion apaizak»

Gerardok maiz salatu zituen herriz herri irudien bila ari ziren erosleak. Gasteizen erlijios museo bat sortzea proposatu zuen sarri, museoen gaineko

ohizko kontzeptuak hilerria oroitarazten bazion ere. Baina, berak zioen bezala, hobe zeuden irudi haiek probintziako museoan, auskalo nongoan baino. Behin ideia horretan oinarrituriko artikulua bati kritika gogorra egin bide zioten zaharkizaleek, López de Guereñuk arteari buruz zer ote zekien galdetzen zutelarik. Gerardok berak kontatu zidan anekdota, «*artearen gainean ezer gutxi baina Arabarekiko nire maitasunari buruz dena ulertzen nuela erantzun nien*».

Erlijos arloko Gerardoren ikerketaren zerrenda luzeagoa da. Liburu gisa «**Devoción popular en España a la Virgen Blanca y a nuestra Señora de las Nieves**», 1967, da aipagarria. Artikuluei dagokienez, berriz, dozenaka idatzi zituen, liburuxka honetako bibliografian irakur dezakegun bezala. Azpimarratzekoak dira, halaber, Valdivielso Payuetako sailduegilearen gainean egin zituen azterketak eta, nola ez, Micaela Portillaren zuzendaritzapean buruturiko Gasteizko Gotzaitegiko Monumentuen Katalogoa deritzanerako ekarpenak.

Gerardo oso gizon elizkoia izan zen. Eta, hain zuzen ere, sentimendu horrek ezin hobeto bideratu zuen arte erlijiosoaren izkutu bihurrietatik, izpiritualitatez jantzirik egon daitekeenak bakarrik lor dezakeen eran.

«*Ama Maria Birjinak, Nori lantxo hau opa diodan, nire ahaleginean lagun diezadala, eskaintzean darakuskiodan seme debozio eta maitasuna aurretik sarituko didalakoa*» idatzi zuen «**Andra Mari en Alava**» liburuaren sarreran.

«**Alava. Solar de arte y de fe**» izenekoaren hitzaurrean, berriz, parentesisen artekoarengatik barkamena eskatu ondoren, hausnarketa txiki bat egiten du, arteak pairaturiko hondamendia dela eta:

«*Benetan samina da, geure arbasoen fedeak gure erlijioaren ohorez eta Santuen ondraz sakrifizio handiz jasoriko monumentu hauek geure egunerarte iraunarazi ez izana*»

Arabar etnografiaren patriarka

«**A**rabar lurraldearekiko nire maitasunak abiarazi ninduen etnografiatik. Apurka apurka probintziako herri eta herrixka guztien historia txikia jasotzen joan naiz, kontzeju, administrazio batzar eta elizetako artxiiboetako datuak biltzen. Gutxienez hiru aldiz egon naiz herri bakoitzean. Horrela, dagoeneko balduta dauden ohiturak ezagutarazi ahal izan ditut; askotan, oraindik bizi diren herritarrengandik entzundakoak ere agertu ditut. Nire meritua horretan datza, erabateko ahanzturatik salbatu ditudala iraganeke denborak, datozen belaunaldien ezagupidetzan jartzeko»

Horrela mugatu zidan Gerardo López de Guereñuk bere burua, hirurogei urtetan zehar eginiko ikerlanaren balantzea eskatu nionean. Orain arte beste inork ez bezala ezagutu zituen arabar gizona eta folklorea, ikerle gazteagoei altxor kalkulaezina utzi zielarik euren lanetan segi dezaten.

Jose Miguel Barandiaranen aholku eta ikasgaiei jarraiki ekin zion lanari Gerardok, nahiz eta ataundarrarekin sekula ez aritu zuzeneko lankidetzan. Arabako etnografiari buruzko beste gidari bat ere aipatzen zuen Gerardok, eskerroneko oroitzapena ageri nahi zuenean: José Iñigo Irigoien. Bi maisu horien ekarpena kenduta, López de Guereñuren emaitzarik nagusiena autodidaktismoari zor zaio.

«Ez naiz literato, kopiatzaile baizik» zioen, bere edozein idazlari buruz mintzatzen ginenean, egindakoari garrantzia kendu nahi izan balio bezala. «Luis Fernández de Retana nire koinatukideak ere ederki lagundu zidan» aitortzen zuen, Arabako elizarik gehienen fabrika liburuetan irakurri ahal izan zuela oroitzean. Justiziako aitorpena, hain zuzen, Illarrazako abade izandako Fernández de Retana hark probintziako eliza askoren ateak irekiarazi baitzizkion.

Normalean, etxera eramaten zituen liburuak eta bere egongela argitsu eta zabal hartan, orrialdez orrialde, probintziako zehazkizunik

azpimarragarrienak jasotzen zituen. Bere fitxeroan azken lau mendeetako arabar historiaren zati garrantzitsu bat gordetzen zuen: herri xehearen eguneroko historia, halebria.

Gerardoren nortasunean zerbait azpimarratu beharko balitz, hori atsedetik gabeko bere adorea izango genuke. Jorratu gabeko gaiaren erraldoitasunak ez zuen gure gizona kokildu eta gorputz eta arimaz lotu zitzaion lanari, ordu guztiak gutxi zirela bere buruari ipinitako erronka gainditzeko.

Bitxia bada ere, Gerardoren lehendabiziko bi artikulua Barcelonako «Algo» aldizkarian argitaratu ziren, 1934an, eta biak, gero hainbeste landuko ez zituen testuinguruetan kokatuta: «Oñate y Aranzazu» eta «Visita al valle de Aramayona». Garbi dago mendirako zaletasunean oinarritua idatzi zituela biak. Aramaioko ibarra izango zen, seguru aski, arabar etnografiako bere lanean gutxien jorratutako esparrua. Eta arrazoia garbi dago, berak onartzen zuen bezala: hizkuntza oztopo bat izan zen berarentzat eta euskara muga gaindiazina gertatu zitzaion. Gabezia horrek arabar baserritar euskaldunenganako harremana zaildu zion, erabat, eta -alde horretatik- probintziako bere azterketa etnografikoa erren geratu zen.

«Zein Araba nahiago duzu? Orain dela hirurogei urtekoa ala oraingoa?» galdetu nion behin, bere semearen laguntzarekin aitaren lan zabalarri errepasso txiki bat egiten ari gintzaizkiola. «*Oraingoa irekiagoa da, komunikakorragoa*» ihardetsi zuen, unetxo batez pentsakor geratu ondoren. Inork baino hobeto ezagutu zuen arabar gizona, harengandik hurbilen lan eginiko ikerlaria izan baitzen, gehienetan bakarrik eraturiko irtenaldietan.

«Artzainekin ezin nitzakeen datuak zuzen paperera pasa. Hobe nuen zehazkizunak gogoan hartu eta beranduago, etxean, gizon haien aitorpenak idatzi. Apuntatzen ikusten baninduten zalantzan jartzen ziren berehala eta ezin nien ezer garbirik atera. Gehien batez, zeharka egin behar nuen galdera, zertara nindoan kontura ez zitezen.

Nekazariekin sistema bera erabiltzen nuen. Lautadako baserritarra burugogorra dela entzun ohi dugu sarritan, baina hori ez da egia. Berarekin nola komunikatu behar den jakinez gero nekazaria oso pertsona atsegina da»

Elkarriketarako zuhurtasunaz aparte, besteeikiko harremanetan bere itxura fisikoak ere lagundu bide zion, Gerardok berak onesten zuen bezala. Arabar

baserritarrarekiko urtetako hurbiltasunak itxuraldaketa eragin ziola zioen, erdi txantxetan, hizkera arrunteko esamoldeak eta airea bereganatzen lagunduz.

Edozein modutan ere, Gerardok ezin zituen ahortzi, iragan denborak eskaini ohi duen lasaitasunetik, bere gogoz kontra bizi izandako istilutxoak. Diputazioko zerga biltzailetzat hartu zuten behin herri batean eta okerra argitu bitartean inork ez zion hitzik zuzendu nahi izan. Beste egun batean, harrika errezibitu zuten. Baina behin bakarrik itzuli behar izan zuten esku hutsik, herriko alkateak -Gerardok sasoiko baimen eta gomendiozko paperak zeramatzen arren- lan egiteko aukerarik eman ez ziolako. Ofizioako ordain nekeak!

Bizitzen tokatu zitzaizkion urteak kontutan izanik, ikerketa lanean inoiz arazo politikorik eduki ote zuen itaunduz gero, ordean, ezetz borobila ematen zuten. Harrigarri xamarra, ezpairik gabe, euskal kutsu apurra eduki zezakeen guztiaren kontra ageri ohi zen Gasteiz ofizial hartan. Dena den, Gerardoren hitzetan samintasun pixka bat ere antzeman zitekeela esango nuke, urtetako lan pilatua argitara emateko garaiko erakunde ofizialetatik erraztasun gutxi eman zitzaizkiola gogoratzen baitzuen.

1970ean publikatu zen liburu gisa Gerardoren obrarik adierazkorrenetakoa: «**Calendario alavés. Vida, usos, costumbres, creencias y tradiciones**». López de Guereñuren obra etnografikoa bere dimentsio egokian neurtu ahal izateko, aipatutako liburua ezagutu beharrekoa dugu. Bere lurraldea bihotzez maite izan duen pertsona bakarrik da gai horren moduko lan burutsua gauzatzeko. Eta Gerardo aztertzaile aproposa zen enpresa horri ekiteko. «*Araba-ren senargaia*» zen, Pilar bere emazteak erdi txantxetan noizik behin zirikatzan zuten bezala.

«*Lau urte inguru zeramatzen ezer argitaratu gabe Sancho el Sabio Erakundearen boletinak. Vicente Botellak aldizkaria berriz martxan ipintzea eskatu zidan eta birritan pentsatu gabe, galdutako denbora erarik hoberenean berruskuratu asmoz, López de Guereñuren "Egutegia" irakolara eramatea erabaki nuen*», erantzun zidan José Mari Ibarrondok, editore bezala Gerardorekin izandako harremanei buruz galdegin nionean.

Orrialde guztietatik aberastasun paregabea darion publikapena bi azalekin kaleratu zen: Sancho el Sabio Erakundearen ohizkoa eta, merkatal kontzepzio moderno bati jarraituz, «alkandora» erakargarri batez apaindutakoa². Bata zein bestea salgai ipini bezain laster agortu ziren. XVI

2. Ferrant eta Mujadasen "Vendedora de pollos" obra.

eta XIX. mendeen bitarteko arabar gizartearen bizitza estiloa hain zehazki erakusten duen obra honek bigarren argitalpen mereziko luke, zalantzarik gabe.

Betiko bere zintzotasunarekin idatzi zuen Gerardok liburuaren sarreran:

«Irakurleak, agian, lehenago argitaraturiko kontzeptu batzuk aurkituko ditu, baina ziur egon daiteke, kontrakorik adierazi ezean, ez direla argitaratu gabeak izango, baina beti edukiko du, nik neronek zuzenean entzun edo irakurri ditudanaren segurtasuna»

Eta hain zuzen ere, nolakotasun hori aplika dakioke López de Guereñuren lan osoari: bere buruarekikoa ezezik besteeikiko leialtasunari ere ezinbestekoa deritzo. *«Desondratua sentituko nintzateke nire lan apaletan»*, jarraitzen zuen esaten hitzaurrean, inoiz zuzenean ez frogaturikoa besterik gabe ontzat ematera ausartu izan balitz.

Herriaren oroimenean ahaztutako zenbait ohitura berreskuratzeko balio izan du Gereñuren «egutegiak», urtariletik abendura bitarteko egunak aletzen doalarik, herrietako jai erlijiosoak, sendi giroa zein kolektiboa, usadio eta efemerideak azaltzen baititu. Ezinbesteko testua, beraz, herrien arteko historia alderatua egin nahi duten guztientzat.

Hamaika urte beranduago, 1981ean, arabar oinarrizko etnografiaren beste titulu bat eskaini zigun López de Guereñuk, oraingo honetan probintziako Diputazioaren eskutik. «Ohitura» izeneko liburu bilduma berri bati hasiera emanez, **«Apellaniz, Pasado y presente de un pueblo alavés»** 0 zenbakia argitaratu zen.

Liburu horretan, Gerardok hainbeste maite izandako herriaren gaineko deskribapen historikoa egin zigun, bera deskubritzen joan zen moduan. Deskribapen zehatza eskaini zuen, fauna eta landaretza, ehiza, arrantza, sendi bizitza eta erlijiosoa, herri medikuntza, umeen jolasak eta nagusien denborapasak, sineskerak, heriotzeko erritoak eta abar luze batez. Guztiz gomendagarria dugu, egileak *«apellanarro»* deitu zuen hiztegi zabala.

José Miguel Barandiaran maisuaren hitzaurrean honela irakur daiteke:

«Bertan (liburuan) baserri inguru bateko bizimodu eta ekonomiaz gain, gaurregun, inoiz baino gehiago, ohituren bizitzako zenbait eragile bereizlerekin lehian ari zaigun bizitza izpiritualako mailak ere nabarmentzen dira. Orrialde hauek, beraz, herri kulturaren irudi eta deskribapen objektiboa eskaintzen digute, gure Herriko beste zenbait tokitan imitatu beharko

litzatekeen lan eredugarria, hain zuzen, inoiz euskal atlas etnografikoa osatzeari ekin ahal izateko, euskal etniaren islادapen zintzo eta osatua gerta dadin haren azken aldietako bilakaeran»

Liburu honen aurkezpenean, Arabako kanpuseko garaiko errektoreordea zen Endrike Knörr-ek esan zuen bezala, López de Guereñuk eskaintako obran ekonomilariak, historiegileak eta filologoak aurkitzen dute langaia. Ez ziren, ez, hitz merkeak.

1988an publikatu zen «**Refranero alavés**», hau ere Diputazioaren ardurapean. Ordena alfabetikoari jarraiki, milaka errefrau, adagio eta atsotitz bildu zituen liburu honen orrialdeetara López de Guereñuk. José Mari Ibarrondo, Juan Garmendia Larrañaga eta Gerardoren semea izan ziren argitalpenaren bultzatzaileak. Eta, hain zuzen ere, Juan Garmendia Larrañaga etnologia ospetsua arduratu zen liburuaren sarreraz.

«... Errefrauak herri desberdinetako baltzuango ondasuna dira, eta zentzu horretan, eragile geografikoa ahazten duten lanak ezagutzen ditugu, esparru konkretu batera mugatzen direnen ondoan, zeintzuetan zabalerak amore ematen du **sakontasunaren** mesedetan. Azkeneko kasu horretan daude, José María Iribarrenen «**Refranes y adagios. Dichos y frases proverbiales**», «**Vocabulario navarro**» tituluko pean sartuta, eta Gerardo López de Guereñuren «**Refranero alavés**», nire arretaren helburua dena.

... Gerardo López de Guereñu ikertzaile xehezalea da. ... Bere liburua kulturaren altxorrerako ekarpen garrantzitsua dugu»

Liburu honek hiru argitalpen ezagutu ditu orain arte. Ez ziren okertu, antza, edukinaren ontasunaren alde apustu egin zutenak.

